




ORRRATX 800!

LEZOKO ALDIZKARIA


1203 - 2003



GIZARTEAN MURGILDURIK

Jaiak izaten dira gizartearen ispilua. Hona hemen 1967. urteko eta 2003.eko Santakruzetan Alkate Ttikiak jaiari hasiera ematen. Aldaketak nabarmenak dira, ezta?





800 GIZARTEA

ORRATX!- LEZOKO ALDIZKARIA

2003KO IRAILA
ZENBAKI BEREZIA

Aldizkari honek erakunde honen laguntza jaso du:



Lezoko Unibertsitateko Udala

NON ZER

5 **zirika**

6 **elkarrizketa**

Antxon Agirrerekin solasean



10 **erreportajea**

Allerru Kirol Elkarte

12 **erreportajea**

Haurrak, haurlan

14 **erreportajea**

Sinesmen eta sineskeriak



16 **erreportajea**

Dantza Lezon

17 **ze berri**

Gizarteko berriak labur labur

21 **moko goxo**

Txahal errea

ATARIA

Etorkinak Euskal Herrian txertatzeaz

Herrian txertatuta bizi al da herri gisa ditugun arazo eta ilusio kolektiboei bizkarra emanda bizi dena?

Euskara herritarren arteko harreman hizkuntza nagusi izatea eta identitate lokala gorde eta zaharberritzeak Lezoko herriaren ilusio kolektiboan leku berezia dute. Eta helburu horrekin lanean ikusten ditut herriko kirol talde nagusiak, ikastetxeak, elkarte gehienak... Horra hor erantzun kolektibo bat.

Sara, Agurain, Artaxona, Caracas, Manila, Extremadura, Hanburgo... Munduko ia bazter guztietatik etorritako jendea izan da Lezon bizitzen 800 urte hauetan.

Etxekoek askotan aipatu izan didate gerra ondoan ere, Lezora bizitzera etorritako etorkinak euskaldundu egiten zirela (eskola edo euskaltegi beharrik gabe). Alegia, frankismorik latzanean ere, lezoarrek euskararen bitartez integratzen zituzten etorkinak. Ez zegoen herrian txertatzeko beste modurik.

Ederki aldatu zaigu egoera geroztik! Zenbat lagun etorri da Lezora bizitzera azken 35 urteetan (batez ere 1965-75 bitartean)? Eta horietatik zenbat txertatu zaizkigu benetan? Arazo berari beste modu batez begiratuta: zein tresneria izan dugu Lezon etorkinak herrian txertatzeko (eta Euskal Herriak)? Eta zenbatek sentitu dute herrian txertatzeko premia?

Herrigintzan jardun naizen urtetan pozez ikusi dut herrira bizitzera etorritako hainbat lagun euskaltegian euskara ikasten gero seme alabekin mintzatzeko. Horiek eta beste askok herriko ikastetxeetan dituzte sema-alabak, euskaldundu eta herrian txerta daitezen. Baina hori guztia beharrezkoa bada ere, ez da aski. Gaur egungo Lezon euskara ez da beharrezkoa (haurren artean ere ez). Askok dira herrian txertatuta sentitzen direnak euskara arrastorik jakin gabe, ikasteko premia sentitu gabe eta hori "euskaldunen arazoa" dela pentsatuz. Ez al dugu esan euskararena ilusio kolektiboan zegoela?

Hurrengo urtetan ez da faltako Lezora bizimodu hobe baten bila etorriko denik. Zer egin behar dugu horren aurrean? Presta gaitzen orain arte egin duguna hobetzeko eta indartzeko. Sor dezagun integraziorako bide egoki bat orain 30 urte egiten utzi ez zigutena egiteko. Hau da, Lezoren identitate euskalduna ardatz hartuta, txertatu herrira bizitzera datorrena; bere identitatea errespetatuz eta denos euskalduntasunean bat eginez. Horixe da lezoarren integrazio formula jatorra, gure herriaren esperientzia kolektiboak erakusten diguna.

!-Lezoko aldizkaria

OHARRA: Ekainean ekonomiari eskainitako zenbaki berezian, aipamen bibliografiko hau egitea ahaztu zitzaigun: ZENBAIT EGILE: Lezoko gida-liburua, natura eta giza lorratza

IMANOL ESNAOLA

Joxe Zelaia lezoarraren bertso-papera

Gaur egun Joxe Zelaia (XIX-XX. mendeak) bertsolari lezoarraren bizitza eta literatur lanak ezezagunak dira. Hemen, ordea, ilunpetik atera dugu Lezoko festa nagusien inguruan idatzi zuen eskuizkribua (zoritzarez hiru bertso-lerro galdu egin dira). Era honetan, Zelaia Lezoko literatura klasikoan bere lekutxo bat betetzera dator, Zamora, Isasti, Gaintza, Sara-

sola, Garbizu eta abarrekin batera.

Bertso-papera XX. mendearen hasierakoa da, eta transkripzioa egiterakoan jatorrizko grafiak bere horretan mantendu ditugu, kasu bakar batean izan ezik: s (ese tontorduna), x bezala berridatzi dugu. Hala: bezelase, bezelaxe; Felis, Felix; Gaspar, Gaxpar; eta Andres, Andrex.

1) Canta polit batsuek
pentza det jartsia
mezede eguizute
ontzat artutsia
eman ezkeru itza
on da kumplitsia
etzait gustatsen iñor
engañatutsia.

5) Feztoyen aziyera
vespera arratsetik
jigante kabezuduak
dirala aurretik
muzikaren soñuan
aurre ta atsetik
dantzan ekuziko da
jendia gogotik.

9) Zezenak omen dira
Lezon jokatseko
erriko semiak ere
toriatutseko
Vicente Oregi eta
Aburrito chiko
bi lenguzu oyek dira
zezenak iltseko.

13) Jakak ere omen du
ortan artu parte
mono sabiyo maisu
bera omen dute
danan buru egiñas
gusiyan presente
Balbino isango da
Plazan Presidente.

2) Adierazi naiyan
notizi berriyak
arkitzen dirade gaur
nere kutiziyak
egon zaiteste firme
onetan etsiyak
eguiyak diradela
kontuok guziyak.

6) Azkok dakizutena
feriko kontuak
urtero bezelaxe
dira aurtenguak
or zalduko dira gaus
milla klasekuak
gulako pobrientzat
aukera onekuak.

10) Uzatsen dan bezela
jantsirik dotore
Felix eta gastelu
dira pikadore
diyote etzayotela
importa batere
saldi ta berak aidian
botagaitik ere.

14) Toreruak gastiak
izanagatika
es omen da izango
beren faltarika
diyote etsayotela
batere importika
nais da adarra zartu
tripan erditika.

3) CHit erri chiki bat da
deitzen dana Lezo
beragatik dabisgu
oraiñ milla itz gozo
gastiak arkitsen gera
posturikan ozo
urteroko festak
eldu diralako.

7) Oriyek danak eta
beste gauza azko
ayuntamentu jaunak
ditu paratseko
politenak oraindik
dauskat ezateko
parres zeradetenak
guziyoik jarriko.

11) Zortzi mono sabiyo
dirade prestatu
korridorretan parte
nai dutenak artu
saldi zarrak billatsen
artsen milla tratu
Arriaundiko Gaxpar
dute kontratatu.

15) Nola pikadore eta
ala toreruak
beren jayotzatican
dira Lezokuak
eta nola baitiren
danak errikuak
oriyek ikusteko
gaude zaletuak.


4) Snt^a Crutz jayoriyek
dirala mediyo
erriyontan badabiltz
milla argudiyo
gastiak bates ere
es egon zeriyo
nere itzeta danak
zaiteste bai fiyo.

8) Ayuntamentukuak
dutena eskatu
gobernadore jaunak
diyote logratu
orlako lisentsiya
zaigu gui gustatu
gastiak arkitsen
gera chit kontentu.

12) Oraindikan geyago
oyezas gañera
zezenak astekuan
ikusteko gera
Andrex igorik kaja
.....
.....
.....

16) Lizentsiya nuben ta
orra publicatu
zer festa bear diran
Lezon zebratu
inor engañatzerik
es det nik pentsatu
ofentsik egin badet
mzedes barkatu

JOSE CELAYA [SINADURA ETA IZENPEKOA]



1 Benetan aldatu al da emakumearen papera gizartean?

Bai, inolako zalantzarik gabe. lehen bigarren planoan bezala zegoen. Orain berdintasuna lortzen ari da.

2 Azkeneko 40 urtetan 2. aurreko 760etan baino gehiago?

Bai, nik azkenak baino ez ditut ezagutu, baina haurra nintzenetik hona ikaragarritzko aldaketa gertatu da.

3 Non dago gakoa?

Mentalitatean. Gaur egun inork ez dizu esaten bata bestea baino gehiago denik emakumea edo gizona izateagatik. Bakoitzak bere tokia dauka, inolako zapalketarik gabe.

Ttanttoka. ANDER LEON**HAMAR GALDERA XELEBRE**

NOR: BEGOÑA UNZAIN **NOLA:** BEGO **ZER:** GAXUXAKO "BOZERAMALEA"

**4 Eta Gaxuxa lan eta lan...**

Bai. Gure helburua emakumeak elkartzea da, adin guztietakoak. Aurten margoketan

gizon bat hasiko da. Integrazioarako beste urrats bat.

5 Asko Martxoaren 8an baino ez dira gogoratzen...

Batzuek besteek baino garrantzi handiagoa ematen diote. Nire ustez eguneroko kontua da. Hori bai, egun horrek badu bere esanahia. Guk afari bat egin ohi dugu.

6 Belaunaldien arteko ezberdintasunak nabariak dira?

Ikaragarriak. Amonatik ilobara oso salto handia eman da. Esan gaur egungo neska bati

anaiaren zapatak garbitzeko ea zer erantzuten dizun.

7 Zer falta da egiteko?

Gauza asko. Besteak beste emakumearen, lanari urtetan eduki duen garrantzia ematea eta baloratzea. Emakumea izan da gaur egungo gizaseme gehienak hezitu duena, eta hori askotan ahazten da.

8 Zein da zure ametsa?

Etxekoandreaki estatuak soldata bat jartzea. Lan hori baloratzeko modu bat litzateke.

9 Zer esango zenieke herriko emakumeei?


Elkartasun gehiago edukitzea eta inbidia gutxiago.

10 Eta gizoni?

Andreak ondo baloratzeko •

Argazki inkesta. ANDER LEON / IÑAKI BERRIO

Bizitokia aukeratzeko orduan eragina izan dezaketen faktore asko dago. Lezon bizi izateko zeintzuk aipatu dizkiguten jakiteko, hona hemen argazki inkesta.

ZERGATIK BIZI ZARA LEZON?**MARIANO VIDAL**

Alde batetik gustatzen zaidalako, eta bestetik, pisuak merkeagoak direlako Donostian baino

**MIREN ZABALA**

Hemen jaio nintzelako eta oso kontent bizi naizelako. Ez dit ezerk inbidiarik eman, kanpoko lekuek ez behintzat

**XERARDO IMAZ**

Oso ondo dago. 10 urte daramatzat eta Errenterian edo beste herri handiagoak baino askoz lasaiagoa da. Oso gustura nago

**ISABEL ZUBILLAGA**

Hemen etxerik egokiena aurkitu nuelako. Oso gustura nago eta dagoeneko ez dut uste aldatuko dudarik.

**RAFAEL LEKUONA**

Hemen jaio nintzelako eta eperrak bezalakoa naizelako, non jaio, han hilko naiz. Donostia baino gehiago gustatzen zait. Herria, jendea... bueno, horretan denetik dago, baina jeneralean oso ondo bizi naiz.

**AXUN IPARRAGIRRE**

Hemen jaio nintzelako eta betidanik hemen bizi izan naizelako. Oso gustura nagoenez, ez dut sekula beste inora bizi izatera joatea pentsatu

**JOSEFINA CORDERO**

Ni ez naiz bizi Lezon, baina askotan etortzen naiz. Oso herri lasaia eta atsegina da. Hemen familia daukat eta oso gustuko dut herria.

**MANOLI CAMPOS**

Ezkundu nintzen eta Lezora etorri nintzen bizitzera. Jende gazte asko dago, ume piloa, parke politak. Gaur egun, ez nintzateke Donibanera bueltatuko.

ANTXON AGIR

"Ondoko herriak izan dira b

Asko jakiteaz gain, tipo jatorra da Antxon. Ideiak burutik ateratzen zaizkio, bata bestearen atzetik, etengabe, eta gai nagusitik abiatuz balizko azpigaiak proposatzeko ikaragarritzko erraztasuna du. "Honetaz hitz egiteko, beste egun batean etorri beharko duzu" izaten da azpigaia amaitutzat jotzeko erabiltzen duen esaldia. Bidaiari amorratua, historialaria eta antropologoa, alpargataz jantzita ibiltzen da "militantzia hutsagatik". Bere burua arrarotzat duen gizon honekin arratsalde bat pasatu genuen Lezoko 1203 urteko gizarteaz hitz egiten, eta egin zuen lehenengo gauza prestatutako galderak bere gustura moldatzea izan zen.

Bueno, hasiko gara. Lehenengo galdera...


Lehenengo galdera Lezo nolakoa zen 1203. urtean izango da. Ez dut izorratzen hasi nahi, baina hori izan beharko litzateke...

Tira, tira...

Datu demografikorik ez dago, baina 100 bat pertsona egon zitekeen. Datua ez da oso segurua, segurua dena garai hartako Lezoko populazioa 80 eta 150 artean zegoela da, lur eremu osoa hartuta. Etxbizitzeei dagokienez, 10-12 etxe izango ziren. Guziak ere egurrezkoak, bai hormak bai teilatua, artzainen etxolak bezalakoak, akaso pixka bat handiagoak. XV. mendearen bukaerara arte ez ziren harrizkoak izaten hasi. Kokapenaz hitz egin badugu, oso sakabanatuak. Elizarik ez zegoen, lehenengo kristauak Donibanera joaten ziren mezarara, gaur egun Bonanza den elizara.

Nola bizi ziren orduko lezoarrak?

Ahal zuten moduan. Literalki. Ez zegoen arrantzale talde bat edo nekazari talde bat edo ehiztariak... Guziak lan guzietan aritzen ziren. Arlo bakoitzetik lortzen zuten emaitza ez zen nahikoa izaten. Adibidez, garai hartan zeuden txalupak oso txikiak ziren, eta badian ibiltzeko baino ez zuten baliu. Beraz arrain gutxi harrapatzen zuten. Nekazari produkzioaren indizea 1,5/1 zen. Gaur egun adibidez 60/1 da. Hau da hazi ale bakoitzeko ateratzen dena.



URRE SORONDO

eti Lezotik tiratu dutenak"





Zer landatzen zuten?

Oraindik tomatea, patata eta artoa Amerikatik ekarri gabeak ziren. Artatxikia edo mijoa izaten zen nagusi. Barazki gutxi batzuk, zeudenak, eta hortik aparte ezer gutxi. Ongarriak ez zituzten ezagutzen eta hori izaten zen produktio baxuaren arrazoietakoa bat. Lurra lantzeko tresnak egurrezkoak ziren, burdina luxuzko artikulua zen. Aberatsek baino ez zuten erabiltzen.

Abererik?

XVI. mendean, esate baterako, nik dauzkadan dokumentu batzuetan aipatzen denez, bi familiaren artean behi bat zuten. Baserririk berean lana bukatu eta bestera eramaten zuten beharrekina segitzeko. Zer esan nahi du honek? Ba historia-fikzioa eginez, 1203. urtean Lezo osoan bi idi pare edo egongo zirela. Normalena gizakiak berak goldetik tiratzea zen. Oraindik, gaur egun Indian horrela egiten da. Batek tiratzen du eta besteak gidatzen du. Horrela egingo zuten. Lazonek idi pare bat edukiko zuen, baina gainontzekoek ez. Ardiak askoz aruntagoak ziren. Etxe bakoitzak bospasei edukiko zituen. Haragia, esnea eta artilea lortzeko erabiltzen zituzten eta etxean bertan zeuzkaten, ez mendian zehar.

Bestelako bizimodurik bazegoen?

Garai hartan burdinolak hasiak ziren, geroago industrializazioa izango zenaren lehenengo urratsak. Zer behar zuten burdinolek? Ba ikatza. Jaizkibelgo magaletan ikazkin taldeak zeuden, batez ere burdinolak hornitzeko, baina ontziolak hornitzeko ere bai, Lezokoa, Pasaiakoa, Errenteriakoa... Artisaurik ez zegoen oraindik, ez zegoen bizimodu bezala ikusita. Etxe bakoitzak bere gauza guztiak egiten zituen. Autarkikoa zen erabat.

Jantziak ere beraiek egiten zituzten?

Bai, haiek landutako linua erabiltzen zuten gehien bat. Linua eta artilea. Gauza finak egiteko linua erabiltzen zuten. Gauza gogorretarako ordea, artilea. Adibidez txapelak, gonak, jertseak... artilezkoak ziren.

Erlijioa?

Hedatzen ari zen XIII. mendearen hasiera horretan. Jende horrek bazekien kristautasuna zer zen, batez ere goi klaseek. Baina orduko katolikoek ikaragarriko ondarea jaso zuten aurreko sinesmenetatik. Ez ziren kristauak guk gaur egun irudikatzen ditugun moduan, beste pentsaera bat zen. Igandetan ez zegoen mezataria joan beharrik. Hasteko, haiek ez zuten ezberdintzen astea edo jaia, ez zekiten zein egunetan bizi ziren, berdin zitzaien igandea edo osteguna edo astelehena. Erdi Aroan jendeak santutegia zuen gidatzen. Hau gertatu zen Santiago baino bost egun lehenago, edo nire ama San Pedro egunean hil zen, eta halako erreferentziak daude. Haiek ez dakite urriaren 12a denik, baizik eta Pilar eguna dela, besterik gabe. Pentsatu behar duguna zera da: 1203. urtean Lezoko biztanle guzti-guztiak alfabetatu gabeak zirela. Inolako salbuespenik gabe.

Elikadura?

Artatxikizko taloak jaten zituzten, hori zalantzarik gabe. Plantan prestatzen zituzten ura eta artatxikia nahasiz. Gainerakoa, ba...zegoena. Barazkiak, noizean behin haragi puxka bat, itsasoan harrapatutako zerbait, arraina zein itsaskia. Lehenago, aipatu gabe utzi dut oso arlo garrantzitsu bat: ehiza eta bilketa. Naturak gauza asko eskaintzen zien garai hartan. Ehiza tranpen bidez egingo zen, eskopetak eta abarrekoak ezagutu gabeko luxuak baitziren. Bilketari dagokionez, gaur egun ez egoteak ez du esan nahi garai hartan halako produkturik ez zegoenik, perretxikoak, esate baterako, edota itsaskiak.

Bestelako janari edota edaririk?

Gazta ere bazegoen, baina ez urte osoan zehar, ez baitzegoen horrenbeste esne. Goserik ez zuten pasatzen, baina ase arte ere ez zuten jaten. Edateko, ura hartzen zuten. Aberatsek sagardoa edukiko zuten, baina irauten zuen bitartean, badakizue, hori behin egiten da eta gero kontsumitu behar da. Orduan ez zegoen kontserbanterik edo koloranterik.

Osasuna?

Elikadura txarra zenez, gorputzak sortzen dituen defentsak oso urriak ziren. "Kirol" asko egiten zuten eta gihar edo hezurdura aldetik oso ondo bazeuden ere, fisiologikoki ez horrenbeste eta hori izaten zen gaixotasun ugariaren sorburua. Hilkortasun tasa oso altua zen, eta horrek familiaren egituraketa eragin handia izan zuen.

Nolakoa zen egituraketa hori?

Familiaren kontzeptua oso zabala zen. Jende asko sartzen zen horren barruan eta gizartearen antolaketaren zutabe handienetakoa zen. Etxe bakoitzean ahal beste bizi ziren eta guziki lan egiten zuten arlo guzietan. Lehen esan dudana bezala, baserria izaki autarkikoa zen. Ez zuten ezer kanpotik erosten. Lehenengo gastuak XVI. mendean medikuari ordaintzeko izaten ziren eta elizako eskubideak ordaintzeko. Orduan ez zegoen ezkontza zeremoniarik, bikoteak biltzen ziren eta kitto. Teorian monogamoak ziren, baina bikotetik kanpoko seme-alabak edukitzea oso gauza arrunta zen. Pentsa, asko hiltzen zirenez, asko jaio behar. Populazioaren hazkunde, hala ere, oso mantsoa zen. Haurren hilkortasun tasa ikaragarria zen eta asko jaiotzea gizartearen autodefentsa sistema baino ez zen.

Nola antolatzen ziren etxe barruan?

Oheak unisex ziren, baina bakoitzean bi edo hiru pertsonak lo egiten zuten. Orain bakoitzak gela bat nahi du. Lehen gauzak ez ziren horrela. Jende xumeak gela bat baino ez zuen, eta bertan lo egiten zuen familia osoak. Abereak aparte bizi ziren, ez oso urrun, baina ez elkarrekin. Jeneralean, familiak ikuiluaren gaineko gelan egiten zuen lo, animaliak bero iturri garrantzitsua baitira. Gainera arazoren bat egonez gero, horren gertu egonda, segituan entzungo zukeen etxeko jabeak.

Sexuen arteko lan banaketa egiten zen?

Paperak ez zeuden orain dauden bezain ezberdinak. Emakumeak lan egiten zuen gainontzekoek bezala, laiarekin edota aizkorarekin egurra txikitzen... Erditu eta gero segituan lan egitera, orduan ez baitzegoen atsedena hartzeko aukerarik. Hala ere, emakumea gehiago egoten zen etxean gizona baino, baina ezin daiteke esan euskal egitura matriarkadoan oinarrituta dagoenik, hori ez baita egia.

Kondairak hori esaten du.

Bai, baina hori erori den mitoa da. Egia da emakumea beti gelditu dela etxean umeak zaintzen, eta gauza txikiak erabakitzeko ahalmena izan duela, baina ez botereagatik, baizik eta gizona ez zelako enteratzen. Hori bai, erabaki garrantzitsu bat hartu behar zenean, adibidez behi bat erosi edo ez edota zer landatu edo antzeko zerbait gizonak izaten zuen azkeneko hitza. Euskal gizartearen matriarkadoa bazegoen, munduko kultura guztiak matriarkalak dira.

Gainontzeko herriekiko harremanak nolakoak ziren?

Urriak. Pentsatu behar dugu garai hartan oso jende gutxi zela mugitzen zena. Alde batetik bestera joatea ez zen gauza erraza. Hala ere, Lezo betidanik izan da pasatu beharreko leku bat, eta horregatik, lezoarrek mota guzietako jendea ikusi dute heritik edo ingurutik igarotzen. Horrek beste ikuspuntu bat eman dio lezoarrari, Gipuzkoako herri askotan eduki ez dutena.

Zer jende mota pasatzen zen?

Distantzia handiko komertzioa sortzen hasia zen. Pasaian itsasontzi asko sartzen ziren badiara gaua pasatzera. Lezotik Herriera joateko modurik errazena batela hartzea zen. Erromes batzuk ere pasatuko ziren, mezulari gutxi batzuk, militarrik, baina gehien bat mota guzietako komertziantek eta arrieroak. Jende hori guziaz hemendik pasatzen zen eta lezoarrak zerbait saltzen, eskatzen edota lapurtzen saiatzen ziren.

Aisialdia?

Aisialdia ezer egin behar ez zuteneko denbora zen. Berdin zitaien asteguna edota hilabetea. Ezer egin behar ez zutenean, astia zen. Nola pasatzen zuten? Ba apostuak egiten, eguneroko lanari lotuak. Enbor bat puskatu ahalik eta lasterren, mendi batera igo korrika, makil bat ahalik eta urrunen bidali... horrelako jokoak egingo zituzten. Bestalde, dantza eta musika egingo zuten, hori zalantzarik gabe. Txistua esistitzen zen. Ez zen gaur egungoa bezalakoa, jakina. Afinatu gabe zegoen eta ikaragarritzko zarata aterako zuen, baina zerbait bazuten. Kanta guztiak galdu egin dira. Historiaren zati bikaina galdu dugu alde horretan, herri musika, hain zuzen ere.

Deskribatu duzun gizarte horretatik gaur egungora, zeintzuk izan dira aldaketa emateko gakoak, non daude eboluzioaren gakoak?

Lezo ezin da ulertu ingururik gabe. Ondoko herriak izan dira beti Lezotik tiratu dutenak, bai Hondarribia bere garaian, bai Pasaiako portua, bai Errenteriko industria eta emigrazioa, baita Donostiatik Europarako bidean egotea ere. Lezo inguruaren

emaitza da. Beraz zuk aipatzen dituzun gakoak kokapena eta azukideekiko harremanak dira.

Badirudi Lezo gehiago aldatu dela azkeneko 100 urteetan, aurreko 700etan baino...

Hala izan da. Baina nork bultzatu du hori? Errenteriko industrializazioak, eta behar zuen lan indarra asetzeko sortu zen emigrazioa. Lezok berez oso gauza gutxi eragin ditu. Besteen eragina jasan duena izan da. Homogenizazioaren bidean gaude, eta oso azkar gainera.

Nola ikusten duzu fenomeno hori?

Gaur egungo Lezoko bikote batek etxea jartzen badu, erosiko dituen altzariak eta elektrogailuak Palenciako edota Marsellako bikote batek erosiko dituenak dira. Sukalde berdina, komuna berdina, mahai berdina, telebista berdina, zukua ateratzeko tresna marka berekoa... Ez dago ezberdintasunik. Homogeneizazioa goaz. Ardura handiena komunikabideek daukate. Baserrietan telebista sartu zenetik akabo ahozko tradizioa, ipuinak edo kantak. Zertarako hitz egingo dugu tresna batek guretzat hitz egiten badu? Eta berdin niretzat edo Tenerifeko guanche batentzat. Ezberdintasun bakarra dugu, eta oso garrantzitsua: Gure hizkuntza. Euskara da bereizten gaituena. Hori da gure ondasunik aberatsena. Espero dezagun hori ez galtzea modak direla eta.


Eta bukatzeko, Lezoko gaurko gizartearen zein arlo nabarmen- duko zenuke?

Oso hiritarra da, zalantzarik gabe. Donostia-Errenteriarren hiriko azken bazterra dela esan dezakegu, eta nortasuna ez galtzeko borrokan ari da. Egia esan, nahiko utzita eduki du orain arte. Ikertu nahi izan dudanean eta bibliografia guziaz hartu dudanean, horren gauza gutxi egoteak harritu egin nau. Historia ikertu gabe dago. Lezoko iraganak garrantzi handia du eta hori argira atera behar da. Gutxiagotasun-komplexua ere nabaritu dut, batez ere inguruarekiko. Harrotasun pixka bat falta da. Zentzu onean.

Hitz egindako hamaika gai gelditu dira hemen aipatu gabe, Antxonek etengabe hitz egiten du eta dena jasotzea ezinezkoa egin zaigu. Berak esaten duen bezala, "beste egun batean etorri beharko duzue" •



Allerru Kirol Elkarteak



Azken 40-50 urteetan, Euskal Herrian behintzat, herri baten gizarte mugimendu eta ekintzetan elkarteek ezinbesteko garrantzia izan dute. Gaur egun elkarten garrantzia nabarmena da, baina gauzak asko aldatu dira. Eta Lezon ere hala gertatu da. Gaur egun dauden elkarteetatik zaharrena eta herritar guzien artean estimatuena Allerru Elkarteak da, bide batez, kirol arloan gure herriko erreferenterik garrantzitsuena dena.

Elkarre honen gaur egungo egoera ez da oso argia (gure arteko herritar askok, baita bazkide izandakoak ere, ez daki zein den bere benetako egoera). Baina, bere hasiera oso emankorra eta indartsua izan zen.

60ko hamarkadaren hasieran herrian kirol eta kultura arloan

lan egiteko giroa oso nabaria zen. Kirola eta kultura gizartearen osagai oso garrantzitsuak direla esan beharrik ez dago. Beraz, aktibitate sozial hauek duten garrantziaz ohartuz, eta herritar batzuren inplikazioaz baliatuz, lan talde bat osatzearen ideia plazaratu zen. Honen ondorioz, Allerru Elkarteak sortu zen (1964ko abenduaren 17an izan zela uste dut). Ideia

honek oso harrera ona izan zuen herriko gazteen artean: lehenengo urterako, 1965rako alegia, Allerruk 435 bazkide zituen jadanik. Hau marka! Ia herritarren % 10!

Elkarteko estatutu eta buletinek diotenez, Allerruren sorreren oinarriko helburu batzuk zeuden:

- Lezoko herriaren ezaugarri batzuk (kultura, jolasa eta kirola) hobetzeko aktibitateak egitea: gazteriarri, heziketa kultural egokiena lortzeko, baliabideak eskaintzea; herriari jolas eta kirol giroa ematea; eta herritarren zorientasun espiritual eta materialerako izagongo den guztia zaintzea eta sustatzea.

- Elkarte barrutik, bazkideen arteko eguneroko harremanaz baliatuz, herritarren arteko adiskidetasuna bultzatzea, lan-giro alai eta indartsua sortuz.

Orduko gogo hura eta lanerako prest zegoen jende kopurua ikusirik, atal asko sortu ziren hasiera-hasieratik: eskubaloia, futbola, pilota, mendia, kultura orokorra (frantsesa, mekano-grafia, ebaketa, sukaldaritza, hitzaldiak...), argitalpenak, antzerkia eta folklorea (dantzak). Atletismoa eta ehiza/arrantza ere euren helburuen barnean zeuden. Beranduxeago txirrindularitza eta argazkigintza atalak ere agertu ziren.

Atal asko izan dira Allerruren ibilbidean jorratu direnak. Berriak agertzen joan dira, zahar batzuk desagertzen, eta beste batzuk, nola edo hala, eustea lortu dute. Sorrerako indarrak eta gogoak ahultzen joan dira denboraren poderioz. Sortutako atal guziari eusteko behar adina indar berri ez da agertu eta elkarteko "sua" itzaltzen joan da pixkanaka-pixkanaka.

Bidean gelditu dira antzerki eta folklorea, argitalpenak, argazkigintza... eta goiko plazan hain igande sutsuak eskaini zizkigun eskubaloia ere.

Elkartek ongi funtzionatu zuen azken urteetan ez zen zuzendaritzaren ordezkio edo erreleborik aurkeztu, eta bazkideen artean ez zegoen lan egiteko konpromisorik hartu nahi zuenik. Egoera honek, oraindik lanean jarduten zutenen azken animoak eta gogoak ia guziz akabatu zituen. Honelako elkarte bat aurrera eramateko beharrezkoa den jende kopurua ez egoteagatik elkartearen izaera galtzen joan zen: kuota ordaintzeari utzi zitzaion, egoitzako taberna itxi egin zen, bazkideen aldetik egoitzaren erabilera desagertzen joan zen...

Ondorengo urteetan, oraindik lan egiteko indarrak zituzten bazkideek, beste zenbait herritarrekin batera, zenbait atali eustea lortu zuten. Urte hauetan, herrian beste kiroletako taldeak sortu izan dira eta Allerruren ize-na eramanaz, elkarte honen atal berriak sortzen joan dira, baina garai haietako benetako elkarte bat lortu gabe.

Azken urteetan, sekzio bakoitza bere kasa konpondu da. Sekzio desberdin batzuen artean ez dago inolako harremanik. Nahiz eta izen bera eraman, talde bakoitzak bere aldetik funtzionatu du.

Urte hauetan guzietan, gauzak asko aldatu dira, eta horien barnean, elkarte batek legalki funtzionatzeko bete behar dituen baldintzak. Elkarte batek egin beharreko lan burokratiko haundia da (gero eta haundiagoa!). Allerru Elkarteak bizi dituen urte ilun hauetan, egin beharreko gauza asko ez ziren egin, inork ez zuelako ardura hori hartu. Sekzio bakoitzak bere federazioarekin baldintza guztiak betetzen zituen bitartean, Allerru Elkarteak

Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin bete beharrekoak ez zituen betetzen. Beraz, ardura eta informazio faltagatik, gaur egun funtzionatzen ari diren atal askoren egoera ez zen guziz zuzena.

Honen aurrean, udaleko kirol teknikariak bultzaturik eta zuzendurik, 2002ko martxoan Allerru Elkarteko atal guziak elkartu ziren egoera normalizatu nahian. Zenbait bileren ondotik, arazo larrienak konpontzeari ekin zioten: estatutu berriak, zuzendaritza, hauteskundeak, zergak ordaindu...

Gaur egun, Allerru Elkartearen egoera legalki konpondu da. Atalen artean elkarte berrindartu nahi da, baina, oraindik ere, ez dago elkarte osoaren alde lan egiteko prest dagoenik. Inor agertzen ez den bitartean, eta berriro ere arazo berean ez erortzeko, gaur egungo atalek elkartearen betebeharrak aurrera eramateko konpromisoa hartu dute: horretarako, zuzendaritza bat osatu dute eta hemengo karguak urtero taldez talde aldatuko dira.

Askotan entzun dira honelako esaldiak kalean: "Non dago Allerru? Existitzen al da? Allerruren egoera tamalgarria da! A zer pena! Zergatik ez dira atal guziak elkartzen lehengo Allerru errekuiperatzeko? Zer kostatzen zaie elkartzea? Bakoitza bere bidetik doa!..."

Atal guziak harremanetan jartzea eta koordinatzea, elkarte aurrera ateratzeko eta lehengo Allerru errekuiperatzeko, ez dirudi lan haundia denik. Bada... nork egin nahi du?


Atal bakoitzeko kideek beraien sekzioa aurrera eramatearekin nahikoa lan badute. Beraz, jende berria behar da; gaur egun atal desberdinetan sartuta ez dagoena; lan egiteko denbora eta gogoia duena. Ba al dago bolondresik?

Honen faltan, gauzek orain arte bezala jarraituko dute: nor bere kasa.

Bukatzeko, gaur egungo Allerru-ren datu batzuk:

Allerru osoki kirol elkarte bihurtu da, kultura atala desagertu egin baita. Hortaz, egin behar izan diren aldaketan artean, izenarena dago: lehen S.C.R.D. Allerru zena, orain Allerru K.E. (Allerru Kirol Elkarte) da.

Atalak: futbola; mendizaletasuna; pilota; txirrindularitza; ehiza eta arrantza; saski baloia; areto futbola; beisbola eta sof-bola. Esku baloia desagertu egingo da (dagoeneko ez dago talderik) •



Beti jolasean

Jokoa edota jolasa gizakiari loturik dago, baina funtzio desberdinak betetzen ditu haurra izan edo pertsona heldua izan. Haurrarentzat ekintzarik behinena da, bere eginkizun naturalena hortik heldu da: “haurrak, haurlan” esaera. Beraz, ez da “denborapasa” soila, denborak eta espazioak bat egiten duten ekintza baizik.

Haurrak taldean elkartzen dira, eta haur taldeetatik kanpo gelditzen badira ere, mutiko fuerteenak (lider antzera) edota neska iaioenak zuzenduko du taldea, helduen gizarteen antzera funtzionatuko du, bai lehen eta bai orain.

Eta haur gizarte hauetan gertatzen da joko eta jolasen ikasketeta eta arauen transmisioa belaunaldi batetik bestera; formulen hautaketa eta bazterketa arauak, abestiak, erabiltzen diren erritualak eta keinuen esanaihia. Garrantzitsuena ekintza bera izanik. Jostailurik gabeko jokoa gehienetan, edo makila bat, soka bat, pilota, edo harr puska bat besterik ez, askotan.

Eta norgehiagoka horretan, indarra eta abilezia erakusteko unerik aproposena izateaz gainera, ogibideetara, medikueta-ara, dendetara, eta abar, nagusien mundua imitatuz bakoitzaren izaera adierazteko une egokia izan ohi da betidanik. Eta gure arbasoak ere beren garaiari loturiko jolasak zituztenez, garai horretan koku behar ditugu.

Adierazgarriena agian, gizarteen gertatzen zen sexu-bereizkera haur jokoetan ere nola islatzen zen ikusten da; indarra eskatzen zuten jokoak mutikoentzat izaten ziren eta nesketan aldiz, geldiagoak, imitaziozkoak, antzezpene-koak izaten ziren, panpinetara, sukaldetara edota abileziazkoak ere, hots, eskuez egin behar zirenak, gehienak eta kantuen laguntzaz osatutakoak. Halaz ere, joko askotan beharrezkoa izaten zen neska-mutilak elkarrekin aritzea. Gaur egungo jokoetan aldiz, sexu-banaketak hori, zorionez, galduz doa, nahiz eta oraindik ere zenbait tokitan gertatzen den. Beste puntu aipagarria zera da; jokoak urte-aroari zegozkionak zirela, asko eta asko naturari lotuak; animaliei (kailokekin udaberrian); landare eta fruituekin (gaztainekin adibidez udazkenean) jolasten zirenak, horien aroetara mugatu beharra zegoen. Edota beste asko, eguraldiaren arabera jolastu beharrekoak izaten ziren, (adibidez, eguraldi onarekin kalean, herrian zehar eta eguraldi txarrarekin aldiz, elizpean, kontzejupean).

Baina helduen gizarteen gertatzen den antzera,

haurren munduan ere aldaketa izugarriak izan dira, lehen eskolako eginbeharrak bigarren mailakoak ziren, irakurtzen, idazten eta kontuak egitearekin aski bazen, gaur egun, haurraren lan prestakuntzaren balorazioa ikaragarria denez, eskolak berebiziko garrantzia hartu du eta lehengoko kale-jolasaldi luze hura gaurko “errekreo”ra eta asteburuetakoko bi egun horietara mugatu da. Helduen bizimoduaren isla hau ere.

Beraz, gure arbasoen joko guziak orrialdeotan aipatzea ezinezkoa bazaigu ere, hemen doakizue adineko herritarrei galdetuta egin dugun zerrenda. Beste herrietakoen antzekoak dira. Ziurrenik, zu ere oroituko zara beste batzuez, baina horiek beste baterako. Hona hemen gure oroimenean daude:



Hatzez:
 “Honek arrautzak ekarri”
 “Honek ta honek ta honek...”

Eskuz:
 “Eragiozu”
 “Txalopin txalo”

Kulunka:
 “Din-dan”
 “Tilin-talan”
 “Bilin-bolon”
 “A la sillita de la reina”

Arre-arreka:
 “Arre arre mandako”

Lo kantak:
 “Lua, lua Santa lua”

Kanta entretengiarriak:
 “Hiru txito izan”
 “A mi burro, a mi burro”

Natura jolas-espazioa:
 - Txoriak, Ipurtargiak, kilkerak, sugandilak harrapatzera (hauek gehienak mutil jokoak ziren).
 - Uzta bilketa, fruitu lapurreta eta arto-bizarra erregai edo tabako gisa erabiltzea, gehienetan, neska-mutilena.
 - Masusten bilketa aurpegia margotzeko, gehienetan nesken jokia.
 - Margarita-lorez edota beste hostoekin egindako apaindurak: koi-lare, soineko, koroc, eraztun... (udako jokia eta neskena).
 - Kalabazak hustu ondotik buruhezurraren itxurako irudiak egitea udazkenean.
 - Beste edozein joko eta jolas naturaren erdian.

Joko aurretik hautaketa egitekoak:
 Ardogi- txanponaz “Cara o cruz” egitea. (Ardo ala ogi?)
 Txotxetara
 Txinoetara
 Hankak egitera
 Txirristi-mirristi
 Dona dona katona
 Arriola-marriola
 Don don kandel
 Madre e hija fueron a misa
 A, e, i, o, u

Lasterketak:
Atzenka - aurkaria ukitu eta ihesari ematea.
Bale-baleka - Antzenkaren antzekoa.
Katean - katea osatuz korri egitea.
Marru-marruka - Taldeka jolasten da. Talde batek besteak aurkitzea herrian zehar marruak (oihuak) botatzen dituzten bitartean.
Arboleketan - Arbol batetik bestera

korri egitea zigortua dagoenak harrapatu gabe.
Kantoi-kantoika - Arboleketan arbolen antzera jolasten da.
Atrapatxean - Txapela ostrikoka ahal den urrutien botatzen den bitartean, txapelaren jabeak harrapatu egin behar du.
A tapar las calles - Taldeka jolasten da. Batak besteari eskutik heldu eta kale osoa tapatu arte. Ez zaio inori utzi behar pasatzen.
Kalejiran - Martxaren konpasa daraman doinuarekin batera kale-txarangak edota, beste talderen bati laguntzea doinuaren erritmor dantzatu, saltoka, ...
Korroan - Borobilean bildu, eta kantatuz, dantzatu, ... ibiltzea.
Pañolitoetara - Taldeka jolasten da. Aurkarietako pañolitoa hartu eta korri egin behar da, ez harrapatzeko moduan.
Pixpíxean - Batek pilota ostrikoka ahal duen urrutien botatzen duen bitartean, besteek harrapatu egin behar dute.
Potoketara - Pixpíxean bezala, baina potokekin.

Gorde-gordeketako jokoak:
 Jolas arrunta da. Zozketa egin ondotik, erabakitzen da nor geldituko den. Eta honek burua paretean edota arbolean ezartzen duenean, hasiko da jokia. Eta gainontzekoak ezkutatu egin behar dira.
Kiribi-karaba -batek “Kiribikaraba” paretari begira esaten duen bitartean, beste guzietan pausu bat aurrera eman eta gelditu egin behar dute. Eta kiribi-karaba esaten duen horrek norbait mugitzen ikusiz gero, mugitzen denak galdu egingo luke eta paretara joan.
Kiriketari - Kiribi-karabaren antzera
Pote-poteko - Batek potoa ahal duen bezain urrutien botatzen duen bitartean, besteak ezkutatu egin behar dira.
Tres naxios-etara - Bi talde osatzen dira. Zozketan galtzaile ateratzen den taldeak aurkitu beharko du beste taldea herrian zehar.
Harrapaketan - Jokalari batek herrian zehar ezkutaturik dagoen beste norbait harrapatzea eta harrapatu ondotik, eskutik heldu eta beste guzietan aurkitzean datza jolas hau.
San Juan de Matute - Batek “ama” egiten du, besteak burua ezkutatu egin du amaren magalean eta gainontzekoak eskuzartadak jotzen dizkiote sorbaldan “San Juan Matute”ren kanta kantatzen duten bitartean.
Zarzarrean - Begi itxiekien laguna harrapatzera

Zimikoka - Zarzarrean bezalatsu, baina harrapatu ondotik, zimikoka eginez.

Salto jolasak:
Astoka - Makurturik dagoen mutiko bat salto eginez gainetik pasatzea.
Asto-astoka - Astoka bezalatsu baina, mutiko bat izan ordez, mutiko taldea izatea.
Txurruteina - asto-astoka bezalatsu, baina hatzez, eskuez edota besoaz galderak eginez azpikoari.

Bestelako jolasak:
Antzubarbantsu - Kanika-joko edo beste jokoren batean “kale” egitean esan ohi den hitza.
Diaboloan - Erpinetan elkartutako bi konoz osatutako jostailua da eta elkartune horretatik pasatzen den lokarrian jirarazten zaio, kordoa eusten duten bi makiletatik pasatuz, goiti eta beheiti txandatu. Eta jira-aldi azkarra bezain erregularra hartzen duenean, aire-ra botatzen da, gero abileziak berriro jasotzeko tinkaturik eusten zaion lokarrian.
Errotan - Pospolu kaxako irudi edo “santu”ren bat aineratu eta erortzean lurreko marran geratu behar du.
Kailoketan - Kantatuz eta eskuaz kailokei eragiten zaie bitartean, pilota goruntz bota eta erortzean kailoken norabideak adieraziko dute galdu duten ala ez.
Kaka-jaten - Lurrean sartuta dagoen txotxa ahoz lurretik ateratzea.
Kaniketara - Lurrean erretenak egin eta bertan jolasten da.
Pilotan - eskuz, palaz, ...
Baloian - Bakarka, taldeka, ...
Turrnbulilaka - Malda batean goitik beheti jaitea, edota belardietan zambilaka ibiltzea.
Txingoketan - Hanka baten gainean txingoka edota, errenka ibiltzea lurrean marrazturiko laukitxo batzuren gainean.
Txirristaka - Zarranbuiloan ibiltzea.
Zirikaka - Tentatzen.
Ziba edo tsiba - Soka batez inguratu eta lurrera bota dantzazaziz. Denbora gehien dantzazaziz duenak irabazten du.
Uztaia - Burdinezko uztaia jiraraztea.
Yo-yo - Bi botoi josi eta hari batez inguratu, bildu, behera bota eta indarraren eraginez berriro bildu.
Toka - Distantzia batetik txapa bat bota eta enborra, edo beste zerbait ukitzea, jotzea. Gehien jotzen asmatzen duenak irabazten du.
Kromoetara - Bi jokalariren kro-

moak edo estanpak ahoz-beheiti jarri eta esku-ahurraren zartadaz jiraraztea lortzen duen lehenak irabaziko du.
Panpinetara - Taldeka edo bakar-ka, helduak imitatuz jolastea.
Antzestera - Antzerkiak egitea, imitatzea, ipuinak kontatzea, ...
Asmakizunetara - Ikusi-makusi, ...

Soka-saltokako jokoak:
 Kalean jolasten da gehienetan. Sokaren mutur banatatik heldu eta sokak eragiten duen arkuak apenas ukitu behar duen lurra. Erritmoa kantuaren arabera izaten da. Eta kantuarekin batera neskek edo neskek salto eginez jirarazten dute. Eta akatsen bat egiten duen saltaria, salto egiteari utzi eta sokan ematera pasatzen da. Hona hemen erabiltzen ziren kantu batzuk. Bizpahiru besterik ez ditugu osorik azalduko, beste gainontzekoak izenburuak bakarrik emango dizkizuegu. Ikusiko duzue, denak edo gehienak erdaraz ziren.

Bikoka:
 Pinis-pinis
 Terresino
 Tirripitina, tatino
 Al español
 Eltrangué
 Larregale
 Muxu la pa
 Xe la pa xe
 Kanpai saltoka:
 Ondarru tabiru
 Ondarru tabiru
 Ondarru tabiru
 Tabiru ta katilu
 Baleriano se pasea
 Al cocherito lere
 Soy la reina de los mares
 Candonga, Candonga
 Que entre, entre
 ¿Cuándo vendrá el cartero?
 Aquel marinero cojo
 Una y dos, patatas con arroz
 Avila, Segovia, Soria
 Enero, febrero, marzo y abril
 Quisiera saber quien es tu novio
 Quisiera saber mi vocación
 Los chinitos en la China
 Chocolate molinillo
 Patiná, patiná, ...
 Soy capitán de un barco inglés
 Lejía el conejo
 Al pimiento colorado
 Me casé con un enano
 Debajo de esta piedra, ...
 ¿Dónde vas Alfonso doce?
 El nombre de María
 Teresa pon la mesa
 Arroz con leche
 Al pasar la barca
 A Loyola subir •

MENDE GUZIEN GAINETIK... ETA AZAL GUZIEN AZPITIK... SINESMEN ETA SINESKERIAK

Edozein gizarteren mundu ikuskerak, jokamoldeek eta ohiturek erlijio edo kosmogonia bat dute atzean edo sakonean. Honenbestez, historiaren aro bakoitza ulertzeko, ezinbesteko gertatzen da orduan bizi ziren gizon-emakumeen sinesteak, mitoak, usteak eta mundua ulertzeko era aztertzea. Gure herriko gizartea aztergai duen zenbaki honetan, historian atzera egin nahi izan dugu, 800 urte baino gehiago kasu batzuetan, lezoarrek - egun Lezo den lurraldean bizi izan zirenek - historian zehar izan dituzten sinesmen, sineskeria eta fedeei gainbegiratu emateko.

Datu guzien arabera, Oiartzun ibaiaren arroa eta Bidasoa ibaiaren itsasoratze eremua hartzen dituen bailara luzea euskal leinuen bidegurutzua izan zen historiaurreko azken mendeetan eta historiaren gure aldiko lehenengo 10-12 mendeetan bederen. Neolitikoaren bukaeraz geroztik hasita, gizataldeek nomada izateari utzi, bizileku finkoak hartzen hasi (bai erromatarren eraginez, bai Nafarroako eta Gaztelako erresumen eraginez) eta Gaztelako erresumaren menpean geratu arte. Baskoien lurraldea zen nagusiki gurea, baina gune Barduliarren presentzia ere nabarmena zen mendebaldera batez ere. Kristautasuna iritsi eta ezari aurretik, euskal kosmogonia zaharra zen indarrean eta euskal mitologiako jainko-jainkosak gurtzen zituzten.

Sinesmen animista zaharren arrastoak -natura bere osotasunean, gizakia barne, zen "jainkoa"- luze iraun dute gurean. Natura da gizartearen eredia eta ondorioz, urteko zikloak ongi betetzeko, naturari lagundu egin behar zaio errietoen bidez. Naturaren arima zaintzen eta gidatzen duten jainko eta jainkosekin harremanetan jartzea zen errietoen zeregina, gizartearen beharrak bete zituzten jakina.

Antzinako euskal sinesmen guziak bat beratzat hartzeko joera arriskutsua dago, baina Joxe Miel Barandiaranen ustez, sinesmen eta jainko nagusi asko eta elkarren artean zerikusirik gabeak izango ziren noski erdi arora arteko aldi luze eta ilunean. Ez zaigu, ordea, arrasto osorik iritsi, bateko eta besteko hondar eta aztarnak bakarrik. Nekazal, abeltzain eta arrantzale giroko Euskal Herriak naturarekiko menpekotasun osoa zuenez, ez da harriztekoa animismoaren errietoen aztarnak erdi aroaren akabera arte iraun izana. Akelarrea horietako bat.

Gure eskualdeari dagokionez eta Lezori dagokionez, Mariaren inguruko istorio, esaerak eta leiendak, sorgin eta akelarreenak eta jentilenak ailegatu zaizkigu gure aldiaren atariraino. Mari naturaren indarra irudikatzen duen jainkosa da jain-

kosa nagusia; emakumea, edertasuna, emankortasuna, misterioa... Bailaran Puiako ama ere deitzen zaio Mariri. Akelarretan, berriz, aker beltza gurtzen da batez ere, eta aker beltza euskal mitologian, ezaugarri batzuei erreparatuz behintzat, Mariaren ordezkotzat hartu ohi da. Ahalmen onuragarriak ditu etxeko aziendentzat esate baterako. Horregatik, ikuilu edo ehietan aker beltza eduki ohi zen etxabereak gaitzetatik babesteko. Kristautasunak ederki baliatu zuen akerrarekiko jaiera hau, ifernuko etsaiaren antza zuela eta, kristau ez zen guzia deabrutu eta zigortzeko.

Jentil edo mairu izena ematen zitzaaien kristau ez ziren pertsona eta errietoek. Gure eskualdean gehien bat mairu erabili delarik. Hala ere, gure herriko zaharrek jentilei buruzko gertakari polita kontatu ohi zuten eta dute: goiko eliza jentilek eraikia izan zela adibidez. Eliza eta trikuharrien egile gisa ageri zaizkigu.

Gure eskualdea, Jaizkibel, Aiako Harria eta Larrun mendien erpinek edo hegiek sortzen duten triangeluak hartzen du ia osorik. Esoterismoaren oinarriek zera diote; lurrean energia puntu edo guneak daudela; mendiak, basoak, gizakiak aldatu eta ukitu gabeko guneak batez ere. Gizakiak horrelako lekuetan sosegu handia eta bakea sentitzen omen ditu. Dibinitatearen presentzia nabaritzen omen da leku horietan. Horrelakoetan egiten zituzten kristautasun aurreko errietoak eta tenpluak. Tenplu eta leku hauek, gero, kristautasunak bereganatu zituen bere elizak eraikitzeko. Honelako gune bat herriko gurutze santuaren eliza dagoena dela esaten dute leiendek, indar bereziko lekua, magiaz beterikoa. Gurutze santuaren eliza egin aurretik ere ermitatxo edo otoiitz leku bat zen bertan kronika zaharren esanetan. Hala ere, arestian aipatu dudan triangeluaren kontuari jarraituz, eremu osoak omen du magia berezia eta horren frogatzat jo izan dira Aiako Harriaren inguruko harrespilak edo mairubaratzak eta Jaizkibelgo 8 monumentu megalitikoak.

Jaizkibelen inguruan ugari dira kontakizun eta leiendak; enbata heldu denean, eta Allerru gainean hain berea duen enbata hodeia paratzen denean, "Allerruko amonak sua piztu du" esan ohi zen inguruko baserrietan. Ezaguna da, halaber, Jaizkibelgo lamiaren istorioa, ekaitza denetan Jaizkibel atzeko labarretan duen leizetik itsasontziei urruntzeko esaten diena... Baina Jaizkibelek berezko duenik baldin bada, hori akelarrea da. Inguruetakoko sorginek negua Aiako Harriaren inguruetan eta udara Jaizkibelen igarotzen omen zuten. Akelarreak egiteko gustuko tokia zen nonbait Jaizkibel eta horren inguruko idatzi eta tratatu historikoak baditugu. Lope Martínez de Isasti herritararen "Relación que hizo el doctor don Lope de Ysasti presbítero y beneficiado de Lezo, que es en Guipúzcoa, acerca de las maléficis de Cantabria por mandado del señor inquisidor Campofrío de Madrid" (1618) eta 1611ko maiatzaren 6an Hondarribian emakume batzuen kontra egin zen epaiketako lekukotasunak eta urte bereko ekainaren 13an emaniko epaia biltzen dituzten Hondarribiko agiritegiko espedienteak hain zuzen ere.

Isastiren tratatuan haur batzuen lekukotasunen aipuak egiten dira eta sorginen inguruko istorio batzuk biltzen dira handik eta hemendik, gehienak Lezo-Hondarribikoak eta hurbileko herrietakoak, Pasaia, Errenteria, Oiartzun, Hendai... Jaizkibelen akelarre lekua zuten sorginenak. Esate baterako, "gizon nafar batek, bidean, neskatila gipuzkoar bati sagar bat eskaini omen zion eta, honek jan egin omen zuen. Gau hartan akelarrera agertu omen zen neskatila hura eta apoak zaintzen iragan omen zuen gaua". Edo beste hau, "gizon noble baten sasiko seme argia Lezoko baserri batean hazi omen zen nafarren artean. Behin, gau batez, izatez "frantsesa" zen Mari Txuloko atso zaharrak engainatuta akelarre batera eramane omen zuen Jaizkibela eta han deabruari aurkeztu omen zion. Geroztik gauero eramane omen zuen akelarrera eta apoak zaintzen eduki".

Hondarribiko auziko lekukotza guziak ere hau-



rek eginak dira eta akusatu guziak lapurtarrak "frantsesak" euren esanetan. "Autos hechos de oficio de la Justicia de esta villa contra Ynessa de Gaxen y María de Garro y María de Hechegaray y María Miguel de Oyanguren y María de Yllarra. Y Catalina de Hecheberría bereara (sic), brujas" da auziaren izena. Kasu honetan ere haur guziek gauza beretsuak kontatu zituzten. Emakume horietakoren batek gauez euren ohetik atera eta hiriko etxeen gainetik Jaizkibela eramane zituela ermita baten ondoko akelarrera, deabruaren aurrera. Garaiko Hondarribiko agintarien amorrurako, Salazar y Frías inkisidoreak errugabe jo zituen auziperatuak. Aurreko urteko (1610) Logroñoeko auto famatuak asko isildu zituen ordurako sorgin soinuak eta inkisidore honek arrazionalitate handiagoz jokatu zuela diote gaian adituek.

Bistakoa da akelarreen jatorrizko zentzua –emankortasun erritua zen- galtzen hasi zenean, herrian gaizki ikusiak zirenen aurka egiteko erabili izan zirela, atzerritarrak, ijitoak... Eta beste herritar batzuentzat, berriz, askatasun une eta kristautasunaren uztarri hestua pixka bat arintzeko erritual bihurtu ziren.

Kristautasuna gailendu ahala, antzinako sinesmenen oihartzunak apaltzen eta isiltzen joan ziren, baina haien zizpiztin eta kontakizun ugari geratu dira euskal sukaldeetan ia gaur arte •

TESTUAK: AGUSTINA PONTESTA

Lehen dantzak

Zintzarri dantzak dira hain zuzen ere XVII. mendearen lehen erdialdean gure artxiboetan agertzen diren lehen dantzak. Zortzi edota hamabi dantzarik osatutako taldea izan ohi zen, gehienetan buruzagi baten gidaritzapean zeharkatzen zituztelarik herriko kaleetako zoko guziak. Zintzarriak beraien jantzi-tara josirik edota zangoetan zerratatelarik. Horrela, inolako instrumenturik ezean zintzarriek markatzen zuten dantzaren errimoa.

Zortzikoa eta Soinu Zaharra. Aipaturiko dantza hauek dira gure folkloreak oinarri-oinarrizkoenak. Nahiz eta aldatuz joan diren, badi-tuzte bete beharreko arau batzuk. Arau edo lege hauek bi dira: Simetria-legea bata, hots, oin batekin egiten dena beste oinarekin ere egin beharra dagoela, alegia, beti eskuineko oinaz hasiera emanez edota eskuin aldera abiatuz. Eta erregela soil honek, melodia eta dantza osatzen duten konpasen kopurura egokitu beharko duela derrigorrez da bigarren araua

Soka dantzak. XVII. eta XVIII. mendeetan gure dantzak plazetako dantza sozialak ziren Gipuzkoako beste herrietan bezalaxe Lezon ere, ttuttun eta atabalaz lagundurik dantzatzen zirenak. Dantza hauek Soka dantzak ziren, gaur egun Gizon Dantza edota aurrekutatutaz ezagutzen ditugunak, adibidez. Igande eta jai egunetan dantzatzen ziren, elizako funtzioak bukatu ondoren beti ere. Herriar gehienek dibertsioa zen, bai gizonentzat, bai emakumeentzat eta baita haurtxoentzat ere. Antzekoak ziren arren, bakoitzak bere errituala zuen dantzatzerakoan, esate baterako, ez baitzen gauza bera Gizon Dantza agintariena edota Etxeko Andre dantza.

Ezpata Dantzak. Orain arte aipatu ditugun dantza hoirek dantza ohikoak eta arruntak baziren, Ezpata dantzak ditugu berezietan berezietakoak, garrantzitsuenetakoak. Urteko festa nagusietan dantzatzen ziren (San Joanetan, Korpusetan, Santakruzetan,...) ikuskizun aparta sortaraziz eta solemnitare handikoak gainera. Deus gutxi dakigu beraien jatorriaz, baina beren itxura zeremoniatsu eta protokolarioak hainbat erritual adierazpen imajinatzeraren garmatzate, hala nola, hileta erritualak batzuetan edota gerla-garaipen erritualak bestee-tan, edo gerlarako prestaketak, obediencia erritualak,... Beraz gaur egun dantzatzen direnak antzinako azarnak besterik ez lirateke izango. Herrikoienak izango dira ziur aski. Hemen eransteakoak lirateke Arin-arinak, Fandangoak, Bordon Dantza, Azeri Dantza eta Brokel Dantza, hauek baitziren antzina gehien dantzatzen zirenak.

Baina zehazki dakiguna zera da: Antonie D'Abbadiek 1853an Iparraldean lehenengo "Fiestas Euskaras" deituriko Euskal Jaiak antolatuz zituelarik, Hegoaldea, foruen galera zela eta lur jota aurkitzen zen. Euskal Herriko baloreak goraiatzeko as-



Jakin badakigu 1541ean jada Oñatiko Corpusetako dantzen aipamena badagoela baina lezoarrok noiz hasi ginen dantzan ez dakigu. Beraz, bistan da azken 400-500 urtetan gure herrietan urtez-urte jarraitu dela dantzan erritual antzera, bai jaietan, festetan, ospakizunetan (ehiza garaian, uzta bilketa garaian ...) edota dibertsioetan, aldaketa haundirik gabe, jazkeran eta estetikan ez bada, bederen.


Dantza Lezon

moz, herrien arteko erakustaldiak, lehiaketak abiarazi zituen hemen, Hegoaldean, hizkuntza alorrean, literatur alorrean, kantu herrikoia, herri kirol, irrintzilari, nekazarien alorretan besteak beste, eta nola ez, dantzarien alorrean ere. Beraz, tradiziozko folklore batetik ikuskizun herrikoia izatera pasatuz, hau da nortasun seinalearen erabilpena, hots gure arbasoen kultur ondarearen erakustaldi gisa. Eta lehiaketa horretako batean bederen, Lezoko neskatxak Loiolan txapeldun izatera iritsi ziren.

Eta gure herrian ondare horren transmisioan izugarritzko lana egin zutenak batzokiko bazkideak izan ziren lehenik eta behin, eta hauen artean dantza irakasleak aipatuz gero, Joxe Intxaurandieta (Alpargateroa), Martin Kerejeta, Inaxio Artesoro (Xikiro), Gezalatarak, Antonio Pikabea... leudeke, mutil taldeen irakasle guziak, eta nesken irakasleak berriz, Gezalatarak (Miren, Elixabete,...) eta geroago etorriko lirateke Joxantonio Etxandi, Patxi Larrea eta orain ahaztuta ditudan dantzariak, azken finean dantzari bakoitza besteen irakasle bilakatzen baitzen horrela transmisioa ziurtatuz, Agustina Hui-zi, Juani etxandi, Arantxa Pikabea,... eta geroztikakoak berriz, Lurdes Esnaola, Xabino Lasa, Marixabel Oroz eta gaur egun-gogoztutxoak besteak beste.

Badakit irakasten ibili diren izen asko aipatzeko utziko nituela, eta are gehiago herritar dantzari txapeldunena, baina batzuk aipatuz gero, eta goian aipaturiko ez gainera, Salaberria anai-arrebak, Joxe Juan Ugalde, Lurdes Esnaola, Patxi Sarasola, Lurdes Lopetegi, Mikel Pontesta, Iban Agote, Iraultza Garmendia, Mederi Orbiso, Aritz Salamanca, ... e.a. Oso zaila da denak gogoan edukitzea batez ere dantza-taldetik etengabe eta belaunaldiz belaunaldi hainbeste dantzari pasa denean, herritar gehienak dantzariak izan direnean, eta guziak elkarren irakasle izanik eta euskal dantzarien taldeak ehundaka herritarrek kultur ondareari eutsi dionean, kontuan edukitze-koa eta, merezimendu osoz aipatzekoa dela deritzot. Lezoko dantzak eta dantzarien historiak izan duen bilakaera aztertu eta liburuska batean biltzeak mereziko lukeelakoan nago. Dantzariak dute hitza •

Ze berri?



ETXAFUEGOAK

Lehenengo albistea 1880koa Ldugu. Urte horretan Justo Esnaola pirotekniko donostiarraren zerbitzuak ordaindu baitziren, dirudienez, jaietan botatako etxafuegoengatik. Etxafuego horiek izugarri gustatu zitzaizkien lezoarrei eta hortik aurrera maiz ikusi ditugu jaietan. Askotan Udalak ez zuen dirurik izaten pirotekniko bat ekartzeko, eta orduan bertako auzokideek diru jasoketa bat egiten zuten hain artean ekarri ahal izateko.

HEZKUNTZA ETA EMAKUMEAK

1908ko otsailaren 7an argitaratu zen dekretuaren 22. artikulua zioenez, Lehen Hezkuntzako maisu-maistrek ikasurtearen bukaeran txosten bat idatzi behar zuten urtean zehar gertatutako gorabeheren berri emateko. Txosten honek hiru atal eduki

behar zituen: egindako eskolako lanak, emaitzak eta aurkitutako oztipoak. Lezoko Udal Artxibo Historikoan 1910 eta 1912 urtetako idazkiak aurki daitezke, eta ikusiko dugunez, bitxikeriaz josita daude. Garai hartako neskeen maistra izan zen Maria Zapiainen pentsamenduaren ikuspuntutik aro horretako gjarzteak emakumeentzako zituen jarrera, aurriritziak eta oztipoak aztertzen saiatuko gara. Txostenetan azaltzen den lehenengo gauza, aurkezpenaren ostean, urtea normaltasunez igaro dela esatea izaten zen, eta batez ere izurrien eza nabarmentzea. Ataria bukatuta urtean egindako lanak aipatzeari ekin zion, baina hori ez ezik, iritzi mamitsuak ere aurki ditzakegu. Irakurmena, idazmena, aritmetika, higieene eta batez ere etxekolanak eta kristau dotrina ziren irakatsitako ikasgaiak. Maria Zapiainek esaten duenez, berak badaki horiek ez direla garaiko pedagogoen gomendatzen dituzten gaiak eta irakatsi behar

direnak "Trigonometria, Dibujo y hasta Gimnasia lo mismo a niños que a niñas" direla. Baina bere ustez hori neskek ikastea ezinezkoa da Lezon, bertan 10 urte beteta ikasleek eskolara joateari uzten zioten eta. Baina maistraren ustez arrazoi nagusia beste bat da. Emakumearen helburua ezin da gizonaren antzekoa izan, besteak beste "es someterla a una lucha muy desigual, dada la superioridad intelectual de hombres" zela medio. Emakumearen asmo nagusia etxearen erregina, senarraren babeslea eta seme-alaben fede emaila eta hezitzailea izatea izan beharko litzateke, laburbilduz, "la mujer es la que ha de reformar los hombres de hoy y formar los hombres del mañana". Horretarako ez da aritmetika edo soinketarik behar, etxekolanak eta dotrina baizik. Emaitzei dagokienez, nahiko onak dira kopuruaren arabera 62 ikasleetatik 49k baitakite irakurtzen eta idazten, hala ere, aztertzaileen mesedea eskatzen du neskek oso urduri jartzen baitira ezezagunen aurrean, "dado su natural atolondramiento" eta frogia egiteko denbora nahikorik izan ez dutelako. Azkenengo atala lana aurrera ateratzeko oztipoa izaten zen. Hasteko arazo hauek konpontzea ez dagoela bere esku gogorarazten du. Bertan hizkuntzari egiten zitzaion aipamen, "la diferencia del lenguaje que en este país dificulta mucho a las niñas para que comprendan las explicaciones", eguraldiari "este clima húmedo que retrae la asistencia", herri izaerari "la afición de los padres a ocupar a sus hijas en las faenas del campo" edota egoera ekonomikoari "la necesidad que obliga a ingresar a sus hijas en alguna fábrica". Arrazoi bat zela, beste bat zela, neska gehienek 10. urtebetetzearekin batera eskolara joateari uzten zioten, eta

eskoatuak izaten ziren lau urteetan asistentzia ez zen behar bezalako izaten. Hau zen garai hartako nesken jasotzen zuten hezkuntza, pentsamendua eta norabidea. Eskola gutxi eta helburu bakar batekin: "formar de las niñas de hoy mujeres instruidas, temerosas de Dios, trabajadoras que hagan la felicidad de sus familias", beraz ez dago soberan, noizean behin, atzera begiratzea nolakoak ginen gogorarazteko, gaur egungo egoera ulertzeko eta akatsak ez errepikatzeke.

ZINEMATOGRAFOA

Dirudienez, Lezon eman zen Lehenengo filma 1916ko jaietan izan zen, Juan Azurmendi donostiarrak zinematofoa ekarri zuenean. 60 pezeta ordaindu zitzaizkien eta honek Gurutze Santuaren plazan jarritako oihal batean 5 film labur bota zituen. Ematen duenez, lezoarren gustokoak izan ziren, eta hortik aurrera urtero ekarriko zuten. Erabilitako oihala 3 metrokoa zen. Erreterian eta Donostian zinemak iriki zirenean jendea aspertu zen plazan botatzen ziren filmeetaz. Bukatzeko esan beharra dago Lezon ez dela sekula zinemalekurik izan, goiko elizako korupekoa izan ezik.

BERTSOLARIAK

Bertsolariak ez dira sekula faltatu eta urtero beraien bertsuok Lezoko jendea alaitzen dituzte, lehenengo oihuturri segida emanaz. Betidanik izan dugu herri festazale eta bertsozaleen fama, baina gaur egun hau adieraz dezakeen oso bertso gutxi konserbatzen dira. Badirudi urtero, eta batez ere, Santakrutzeko jaietan bertsolariak Lezo aldera etortzen zirela, eta adibidez XIX. mendearan amaieran Kortazar, Uztarri eta Errekalde zaharra azaldu ziren bertsoak kantatzeko asmoz.





DANTZARIAK ETA MUSIKARIAK

Honetaz dugun lehenengo albistea 1749. urtetik datorkigu. Dirudinez, eta garaiko agiri batek dioenez, San Juan jaietan Lezon 55 dantzari bildu ziren San Juan arbolaren aurrean ohorezko aurrekoa dantzatzeko. Agiri batzuen irakurketatik atera dugunez, oso garai zaharretatik bazegoen Lezon udal danborinari bat. Honela 1817ko otsailaren 8an, orduan zegoen Joan Krutz Zelaia danborinari lezoarrak soldata igoera eskatu zuen Lezoko Udal Artxibategian gordetzen den agiri baten bidez. Jaietako, danborinari eta musikari gehiago behar izanez gero, Udalak kontratatu egiten zituen, eta udalaren egoera ekonomikoa oso ponposoa ez zenez, arazoak eta istiluak kobratzeko orduan etortzen ziren. Honelaxe, 1820ko abenduaren 21an, Antonio Manterola danborinari errenteriarak San Juan eta Gurutz Donearen gorespeneran jaietan berak eta bere bi semeek egindako lanaren ordaina exijitzen du.

SANITATE UDAL BATZARRA

Herriko biztanleriaren osasuna segurtatu edo hobeto esanda, zaindu nahian, XIX. mendearen bigarren erdialdean, "Sanitate Udal Batzarra" izeneko osasun erakundea eratu zen. Lehenengo albistea 1885 urtetik

datorkigu, eta dakigunez hauxe zen bere antolamendua. Osatzaileak: Herriko errektorea, sendagile titularrak eta hiru familia buru (geroago gehaigo sartu ziren eta azkenean nahi zuena joateko aukera zabaldu zuten) Helburuak: 1. Etxe etxe geletako sanitate egoera bijilatu 2. salmentan zeuden haragi, arrain eta bestelakoen egoera aztertu 3. Iturriak eta gribotokiak ondo bijilatu 4. Udalak gordetik zuten materiala desunfektantea egoera onean mantendu 5. Baserrietan zeuden gaitz kutsakorak ondo isolatu 6. Herriaren garbiketa orokorra bijilatu 7. Biztanleria eta aziendaren gaitzak desagerrarazi.

MEDIKUNTZA

1806an Lezon sendagile titularrak bat izateko antolatu zen konkurtoa da sanitateari buruz aurkitu dudana lehenengo datu zehatza. Ehun urte beranduago, 1907ko uztailaren Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak bildurik, Aldundi barruan egongo zen sendagile titularraren erakunde bat sortzea erabaki zuten. Proiektu honen aurrean udalak molestatu ziren beraien udal autonomia arriskuan ikusten baitzuten eta Irungoa buruan zutelarik atzera botatzea lortu zuten.

ONEZKO LASTERKETAK


Dokumentatutako lehenengo lasterketa edo karrera, 1923ko irailaren 3an egin zen, eta hauxe

izan zen bere luzeera: Plaza, San Juan kalea, Altxate, Bekoerota, Zubitxo eta berriz Plazara. Hauek izan ziren emandako sariak: Lehenengoari 15 pezeta; bigarrenari 10 eta hirugarrenari 5. Karrera hau urteetan errepikatu zen Lezoko kaleetan zehar, askotan ibilbidea aldatuta.

HIDALGIAK

Lezoko kondairaren hastapenetan, bertako biztanleria ez zegoen sozialki diferentziatuegia. Biztanle gehienak baserritarrak ziren, eta hauen ondoan Lezo Haundiko jauntxoak eta bestelako linajeetakoak zeuden. baina udaletxetako bizitza politiko-ekonomikoa askotan "hidalgok" edo "miliarista" deitutakoen eskuetan zegoen. Hauek ziren botoa eman zezaketen bakarrak, eta kargu publikoak akaparitzen zituztenak. Hidalgo, aitonseme edo militarista izateko frogakizun batzuk agertu behar ziren, horien artean odol garbitasuna azaltzea, bere zainetan ez mairu eta ez agote odolik ez zuela segurtatzen zuten dokumentuak azalduz. Hau eta gero legeek hidalgia lortzeko eskatzen zuten hondasan kopuruaren jabe zirela azaldu, eta azkenez diru zergak ordainduz. Udal artxibategian aurkitutu dudana hidalgari buruzko lehenengo testua 1700 urtekoa da, eta bertan irakur daitekeenez, urte horretako urtarilaren 6an,

meza santua entzun eta gero kontzejua bildu zen, eta Hondarribian aurkeztutako odol garbitasunaren auzia baieztaturik ikusi ondoren, Joxe Auxtin Apeztexea eta Joxe Frantzisko Apeztexea anaiak hidalgotzat onartu zituzten. 1809ko urtarilaren 7an gauza bera gertatu zen Joxe Esteban Galarragarekin. Urte bereko ekainaren 19an, Manuel Benito Otsoa Osorio urantziarrak bere hidalgia eskubidea erreklamatu zuen, lezoar milarista zen Maialen Mendizabalarekin ezkondua zegoela eta herrian lurra eta etxea zituela argudiatuz. Hortik aurrera Lezoko artxibategian aurki daitezkeen hidalgia eskaerak edo izendapenak ugaritu egiten dira, azkena 1844koa izanik.



LEZO VICTOR HUGOK IKUSIA

Gauza jakina da 1843 urtearen inguruan, gure herriko karriketari Victor Hugo idazle frantziar ospetsua ibili zela. Berak utzitako testigantza zati batzuk ekarri nahi izan ditugu aldizkari honetara. Testua Koldo Izagirrek itzulia da eta Pasaia-Lezo Lizeoak argitaratu zuen Kilometroak 97 ekitaldia zela eta.



Baditu egun batzuk oharteman dudala menditik ikusten den itxura berezi eta tristeko herri bat. Herri honen izena, oker ez banago, Lezo da. (...) Ez nuen aurpegi gazterik ikusten, ume zarpatsu batzuk izan ezik; jarraitu egiten zidaten eta, jiratzen nintzenean, atzera egiten zuten ihes egin gabe, belhurturiko otso gazteak bezala.(...)

Pikor-harrizko eliza luze, erraldoi ilun batek menderatzen du herri zakar hau. Urrundik ez da eliza, bloke bat da. Hurbildutakoan, horma-begi batzuk ikusten dira murruan, eta hiru edo lau ojiba, hamabosgarren mendekoak, absidean. Pentsatu izan dutenez inondik ere horrek argitasun sobera ematen zionla harrizko kutxa honi, tapiatu egin dira ojibak, eta idi begi estu bat besterik ez dute utzi bakoitzaren erdian. Murrua gorriska da, likenak jana. (...)

Zazpi edo zortzi atso itsusi zeuden ko-

koriko tarteka jarriak elizaren inguruan. Ez dakit konbinaketa halabeharrez egin zen, baina atso hauetarik bakoitzak teilatua ertzetik lepoa luzatzen zuen gargola banari egokituak ematen zuen. Aldizka atsoek zerurantz behatzen zuten, eta gargolekin behako samurrak trukatzeko zituztela ematen zuen (...)

Ene ostarlesa, Vazquez andere ezin hobea, hurbildu zitzaidan:

- A jauna, zeinen berandu zatozen (...)

nondik zatoz horrela

- Lezotik

- A Lezora joan zara?

- Bai, andrea (...) ez al zara inoiz egon?

- Ez jauna!

- Eta zergatik

- Bada, herri honetakoak, ez garelako inoiz joaten Lezora!

- Eta zergatik ez zoazte ba?

- Ez dakit! •

CHARLES DEMBOSWSKI LEZON

Hona hemen Lezori buruzko pasartea Charles Demboswski poloniar idazle ospetsuaren "Deux ans en Espagne et en Portugal pendant la Guerre civile: 1838-1840" (Paris, Train et Hunnot, 1841) liburuan agertzen dena. Agustina Pontestak euskaratutako artikulu hau liburutegiko artxiboan dagoen eta Espasa-Calpek argitaratutako itzulpenetik egin da. "Dos años en España y Portugal durante la Guerra Civil. 1838-1840) liburutik alegia.

Bilbo, 1840ko irailaren 25a

Azpeitiara iritsi eta biharamunean, txistulari eta ttuntuneroak buru zituelarik herriatik kanpora zihoan baserritar jende oldeak harritu ninduen.

Emigratzaile alai haiek nora ote zihoa zen ostalariari galdetu eta, honen ahotik jakin izan nuen Lezora zihozela; Donostiatik legoa batera dagoen herrikara, Gurutze Sainduaren gorespenaren festa ospatzera.


Aipatu ere aipatu zidan, herri horretako elizan zer-nola konserbatzen den gurutze mirarigilea, euskal itsasgizon guziek ondartzeko dutena eta, egin nezakeen gauzarik onena Lezora joatea izan zitekeela esanez bukatu zuen, zeren eta aipaturiko festa, gerla zibilak iraun zuen artean ez baitzuten ospatzerik izan; eta oraingo honetan guttienez, animatu eta ederra izango zelakoan. Oraingoan ere konbentzitu egin ninduen.

Lezoko karrikatxoetan Agustinekin (Chaho?) batera paseatuz nindoala, kostaldeko leku guzietatik etorritako baserritar andanaren erdian aurkitu nintzen. Erromes-jendetzak behar baino hamar bider tikiagoa zen eliza, aldare-oholtzetan ezarritako sutargitzarrek ez zuten behar adina zulo zeramatzan kandelak sartzeko. Alde guzietatik isurtzen ari ziren argizari-zorrotadaka igurtzitzen ari ziren akolitoak beren hatzazalez. Sabaiaren berriz, koloretako hari muturretatik zintzilik agertzen ziren elizarrak eskainitako itsasontzitzoak, bai itsasoan egindako promesaren baten adierazle gisa edota, atzerrian zegoenaren itzulera eskatzeko eskainiak. Arratsaldean, gurutze miragarria herrian barrena eraman zuten prozesioan; jendetzaren debozioa mutikoen alaitasun

zalapartariak hausten zuten, hesia saltatuz plazatik ihes egin nahian, maskuri haizatuak zeramatzen mutikoen aurretik pasatzera ausartzen ziren neskatxak joka dibertitzen baitziren.

Prozesioa bukatu eta, su eman zioten txirbilez betetako barrika batzuei, eta txistulariak lehenik eta ondoren danborrarien emanaldia egin eta gero, dantzaldia hasi zen.

Biharamunean zezenketa handia izan zen herriko plazan •






Azoka

IKUSI



IRAKURRI



ENTZUN



kritikak

COURSE DE NOVILLOS A LEZO

Gustave Colin



Iñaki Zabaleta

Ba al da inor, Aizpea ostatuan horatik eskegita dagoen argazki honi buruz, noizbait galderarik bururatu ez zaionik? Adibidez, ea non dagoen, nork margotu zuen, ze garraioa den, existitzen den,...

Existitu, existitzen da eta nire azken berriek Colonial (Alemania) kokatzen dute. Bere egilea Gustave Colin (1828 - 1910) dugu, Arras-eko margolaria (Frantzia). Gustavek zuzenbide ikasketak egin zituen Parisen, baina berari benetan gustatzen zitzaiona margotzea zen. Doutilleux eta Tomás Couturereen ikasle izandakoaren margoak, 1885. urtetik aurrera eskola inpresionistaren estilokoak izan ziren. Aipatzekoa da beraz, egun, bere lana Corot, Cezanne, Degas, Monet, Berthe Morisot Renoir, Sisley, eta abarrekin parekatzen dela.

1858. urtetik aurrera, maiz etorri zen Euskal Herri-ri gure paisajeak eta gure jaiak marraztera; bereziki, zezenketak. Garai honetakoa ditugu bai Lezon (aurrean dugun 'Course de Novillos a Lezo' (1885) eta Lezoko plaza eta udaletxea agertzen diren 'Pelerinaje a Lezo' (margoak), bai Donibanen ('Course de novillos sur la place de Pasages' 1869), bai Bizkaian ('Novillada en Biscaye' (1887 eta 1888)) margotutakoak. Bukatzeko esan, 1983an, eta Elias Salaberriaren lanari buruz egin zen erakusketa aprobetxatuz, denbora baterako San Telmora ekartzeko ahaleginak egin zirela. Egun, batek baino gehiagok betirako ekarriko genuke hain urrun dagoen gure altxor hau.

LEZOKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA

Imanol Esnaola



Joseba Aurkenerena

Gauza asko esan dira herriko euskarari buruz, baina jaso ez da orain arte inoiz egin. Liburu hau esparru hau betetzera etorri zaigu, eta baita ederki bete ere, gainera. Lau zutabe ditu lanak: Euskal Herriaren historia, euskararen historia soziala herrian. Eta mende eta garaiekin arteko elkartetatik eta ikertetatik bere ondorioak atera ditu. Bukaera aldera bost etnotestu aurkeztu dizkigu; ederrak eta adiezkorrak benetan, lekuko ezin hobek. Liburu polita eta atsegina, edukiz bete. Imanolek ez du liburu entziklopedikoa egin nahi izan, dibulgazioa baizik, eta hori zumatuta eta eskertzen da. Hemendik aurrera Lezoko euskararen historiaz eta presentziaze zeozer jakin nahi duenak badaki nora jo.

(1999ko urrian Orratz! aldizkarian argitaratua)

ZAHARKITURIK GERATU AL GARA?



Eñaut Gantxegi

Galdera horren erantzuna eman-go dizuete hasteko: EZ! Herriatik kanpoko askori Lezokoa naizela esatean, lehenengo gauza Santo Kristo aipatzen didate, eta gutxiengo batek (artearen nozio pixka bat dutenek) gehienez ere Elias Salaberria aipatzen didate. Lehenengoak (Kristok alegia) bere meritua izan zuten ala ez eztabaidatzera ez naiz sartuko, entziklopedia bat beharko bainuke. Salaberriatarraren meritua ezbaierik gabe onartzen dut, margolarien artean maixu izan baitzen. Baina hortik aurrera ez al da izan beste inolako artistarik? Ez al dago Lezoren izena gure herriatik kanpora esportatu duenik? Bada bai! (pentsatuko duzue eroturik nagoela, nire galderak neronek erantzuten ditudalako; Irakasle batek esaten zigun okerrera ez dela bakarrik hitz egitea, norberak bere buruari erantzutea baizik). Badira makina bat artista gure herriatik kanpora irten eta beraien lekua egin dutena; ez naiz sartuko guziak zerrendatzera, luze eramango bailidake baikoitzaren meritua deskribatzea. Hauetako batzuk biltzen dituen talde bat hartuko dut hizpide: Jousiloui. Polemikak polemika, Euskal Herri mailako panoraman beraien tartea egin dute, eta kaleratu dituzten bi diskoak bidea egiten ari direla demostratzen dute. Azkenak, Terrorista izenekoak, aurtengo udako abestietako baten jabe egin die, hainbat telebistatan ikusi ahal izan den bideo klipari esker. Musika izan ote da sona eman diena? Hedabideetara eraman dituzten miloika eurotako maletinak ote? Edota bestela Eskorbuto taldearen testigua hartzeak? Ez dakit zein izan den formula, baina gure herrian oraindik talentua badela argi utzi dute.

bibliografia

Lezoko gizarteari buruz gehiago jakin nahi baduzue, Udal Liburutegian, bestekak beste, liburu eta aldizkari hauek irakurgai dituzue.

Zenbait egile: Lezoko Gida. Natura eta giza lorratza.

Etxezurietza, K: Lezo

herriaren ikuspegi sozio-politiko-ekonomikoa

Garmendia, G. eta San Roman, A.: Lezoko demografia eta industria XX. mendean

Esnaola, I. eta Agirretxe J.L.: Lezoko euskararen

azterketa

Lankide Aurrezki Kutxa: Analisis descriptivo comarca Renteria-Pasajes

EUSTAT: Udal adierazleak

Izagirre, K: Victor Hugoren Jaizkibel

Julio Caro Baroja. Brujeria vasca

Jose Miguel de Barandiaran. Diccionario de mitología vasca. Mitología vasca.

Resurrección María de Azkue. Euskal Herriaren Yakintza.

www.lezo.net

Orratz! aldizkaria

"Lezo" aldizkaria

Iturri zuzenak izaten dira onenak, beraz Udal Artxibo Historikoan herriaren historiari buruzko testigantza zuzenak aurkitu ahal dituzue.

moko-goxo

Hemen duzue **Karlos Ibarrondok** Lezok 800 eguneko herri bazkarirako prestaturiko plater goxoa

PROPOSATU DIGUTEN PLATERA

Txahal errea

OSAGIAK

- 🔪 200 kiloko txahala
- 🔪 Egur ikatza
- 🔪 Gatza
- 🔪 Likorea
- 🔪 Ardo zuria
- 🔪 Pazientzia


PRESTAKETA

Bazkaltzen hasi baino hamabi ordu lehenago txahala burruntzi batean jarri behar da sutan. Lanean hasteko txahala burruntzian jarri behar da, eta alanbreekin lotu behar da hainbat tokitatik. Txahala mahaira eramateko orduan zatika mozteko balioko dute alanbreekin egindako loturek. Txahalaren azpian egur ikatza zabaldu eta su eman. Txahala sutan dagola, ordu erdiro buelta eman behar zaio, beti ere, azpiko txingarrei kasu eginez temperatura berari eusteko. Sei ordu pasa direnean, likorea, ardo zuria eta gatzarekin egindako nahasketa bat bota txahalari. Hamabi orduak pasa direnean, prest dago jateko. Lehendik alanbreekin lotu dugunez, txahalaren zatiak moztu eta berehala mahaira eraman behar dira, bero-bero dagoela. On egin!



lehiaketa

Hona hemen zenbaki honetako lehiaketa. Oraingoan zenbakiekin jolastuko dugu herriari buruz asko dakizuen ala ez egiaztatzeko. Galdera bakoitzaren erantzun zuzena kupoian idaztea baino ez duzue egin behar liburu, diska eta bideo sorta zoragarria lortzeko. Orratx! aldizkariaren egoitzara ekarri edo bestela Oroitzene AEK euskaltegian edo Aiton Bordan dauden buzoietan sartu. Aldizkaria urratu nahi ez baduzu, fotokopia egin edo aparteko orri batean idatzi. Beste aukera bat e-mailen bidez egitea da orratx@topagunea.com helbide elektronikora. Horrela egin zuten Joxemi Garmendiak eta aurreko Orratx 800!-eko garailea dugu. Berarentzat izan da argazkian duzuen opai sorta ederra. Zorionak!!!



1. Zenbateko azalera dauka Lezok?

- a) 7 km² b) 8,5 km²
c) 9 km² d) 11,5 km²

2. Zenbat biztanle dauka 2001eko erroldaren arabera

- a) 4.267 b) 5.543
c) 5.834 d) 6.003

3. Errolda beraren zenbat lezoar zeuden langabezia?

- a) 178 b) 248
c) 333 c) 567

4. Ofizialki, itsasoaren gainetik zenbat metrotan dago Lezo?

- a) 6 m. b) 16 m.
c) 34 m. d) 246 m.

5. Lezoko Barne Produktu Gordina banatuta, zenbat euro legokioke lezoar bakoitzari?

- a) 8.969 b) 15.987
c) 36.125 d) 121.154

6. Zenbat liburu, disko eta bideo aurki daitezke Udal Liburutegian?

- a) 3.967 b) 8.023
d) 11.558 d) 13.420

7. Zenbat banku bulego daude herrian?

- a) 4 b) 5
c) 6 d) 8

8. Zenbat autobus ateratzen da lan egun batean Lezotik Donostiara

- a) 15 c) 34
c) 44 d) 66

9. Zein izan zen ohiko Orratx aldizkariaren azkeneko zenbakia?

- a) 43 b) 52
c) 64 d) 69

10. Zenbateko biztanle-dentsitatea du Lezok?

- a) 48,48 bizt./ km² b) 223,98 bizt./ km²
c) 686,35 bizt./ km² d) 1.086,02 bizt./ km²

ERANTZUNAK:

1.
2.
3.
4.
5.
6.
7.
8.
9.
10.

IZEN-ABIZENAK:

.....
.....

TELEFONOA:

.....



Orratz 800! aldizkaria artelan batekin ixtea ohitura bihurtuta, hona hemen Gustave Coline (1828-1910) margolari frantziarraren artelan bat, "Pelerinage a Lezo" izenekoa. Koadro hau "Donostia Gipuzkoa Kutzarea ondare artistiko"ko bilduman dago eta argitaratzeko eman dizkiguten erraztazunak eskertu nahi dizkiegu.

Lezok

